

LANTALDEA: “ERREGISTRO BIBLIOGRAFIKOEN ETA AUTORITATEEN KATALOGAZIOA”

TALDEAREN XEDEA:

EIPSeko liburutegi ezberdinekin lantalde bat osatu ondorengo jorratzeko:

- Katalogazioan sortzen diren zalantzak argitu, bai erregistro bibliografikoei dagozkienak baita autoritateei dagozkienak ere.
- Gai ezberdinetan irizpideak homogeneizatzea: katalogazioa, generoak, haur eta gazteentzako liburuak, etab.
- Ezarritako arauak betetzen direla egiaztatzea.
- Geroz eta katalogo homogeneoagoa lortu, bikoiztutako erregistroak ekidituz.

PARTE-HARTZAILEAK:

1. DONOSTIAKO LIBURUTEGIA
2. ARRASATEKO LIBURUTEGIA
3. BERRIZKO LIBURUTEGIA
4. LEIOAKO LIBURUTEGIA
5. IGNACIO ALDECOA KULTURA ETXEA
6. BILBOKO LIBURUTEGIA
7. IRUNGO LIBURUTEGIA
8. GASTEIZKO LIBURUTEGIA
9. HABE LIBURUTEGIA
10. EIBARKO LIBURUTEGIA
11. ERRENTERIAKO LIBURUTEGIA
12. AZKUNA MEDIATEKA
13. LIBURUTEGI ZERBITZUA

LAN-PROZEDURA:

1. Beste liburutegiei lantalde honi buruzko informazioa jakinaraziko zaie (Akta Sareko liburutegi guztiei bidaliko zaie)
2. **“Ba al zenekien?”** izeneko atal bat egongo da. Absysnet-eko idaztegiaren bidez “pilula txikiak” bidaliko dira kalitatezko katalogo bat mantentzeko prozedura garrantzitsuak gogorarazteko asmoz.
Adibide modura: “Gogoratu **katalogatzeko bilaketak kateatutako bilaketaren bidez egiten direla**” edo “Kontuz **BNEtik erregistro berria deskargatzeko momentuan**. Seguruena T260 eremua faltan izango du. **Absysnet-ek ez du abisurik ematen!**”
3. Autoritateak nola baliozkotzen diren jakiteko asmoz **ESKEMA-FITXAK** sortuko dira bete beharreko eremuekin: oinarritzko etiketak.
4. **“URREZKO ARAUAK”** deitutako dokumentua osatuko da
5. Urtero, gutxienez, **aurrez aurreko bilera bi** egongo dira parte hartzen duten liburutegi guztiekin.
6. **GORABEHERA** guztiak Liburutegi Zerbitzuko helbide elektronikora bidaliko dira (liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus). Zerbitzuaren ardura arlo ezberdinetan erabakitakoa adostea izango da: akordioak, eguneratzeak, katalogazioan sortutako zalantza ezberdinak...